

**LURRALDEAREN ANTOLAKETA (5.zatia)*****EBren zabalkundea:***

Hauteako zein dira Kopenhageko irizpideak? Aukeratu

- Estatu bakoitzak bere lurraldeetan dituen legeak betearaztea
- Europar Batasuneko legeak aplikatzea
- Merkatu-ekonomia bideragarria izatea
- Ekonomia kontrolatu eta arautua edukitzea
- Erakunde autonomikoak edukitzea
- Erakunde demokratikoak eraikitzea

(1).....

(2).....

(3).....

Europa 2020 estrategia:***Erabaki esaldi hauek egia ala gezurra dioten:***

- Europa 2020 strategiaren asmoa da eskualde pobreenen bizi-maila eta garapena eskualde aberatsenen parera gerturatzea. (4).....
- Europa 2020 strategiak gizarteari eta ingurumenari dagokienez jasagarria izango den eredu ekonomiko bat sortu nahi du. (5).....
- Europa 2020 strategiak EGEF funtsekin finantzatzen diren hiru helburu ditu. (6).....
- Europa 2020 strategiaren asmoa da Europar Batasunaren lehiakortasuna areagotzea ekonomia-potentzia berrien aurrean. (7).....
- Mundu globalizatuaren beharrak asetzeko eta ekonomia-krisiaren ondorioei aurre egiteko sortu zuen EBk Europa 2020 estrategia. (8).....

***EBren eskualde-politíkoa:***

Osatu esaldiak, aukeratzen bat. Idatzi behar duzue aukeratzen duzuen esaldia.

A) Hau da eskualde-politikaren helburu nagusia:

.....

- Ekonomia-potentzia berrien aurrean, lehiakortasuna areagotzea.
- EBko eskualde pobreenen bizi-maila eta garapena eskualde aberatsenen parera gerturatzea.
- Pobreziaren era aberastasunaren banaketa desorekatuaren aurka borrokatzea.

B) Hori lortzeko ezarritako hiru helburuetako lehena:

.....

- Ingurumenari buruzko ikerkuntzak egitea da.
- Pobrezia-arriskuan dauden pertsonen kopurua murriztea da.
- Hazkundera sustatzea da.

C) Bigarrena, berriz:

.....

- Energia-eraginkortasunaren alde egitea da.
- Duintasunez bizitzeko eskubidea bermatzea da..
- Lehiakortasuna eta enplegua areagotzea da.

D) Eskualde politikoen hirugarren helburua hau da:

.....

- Estatu kide guztietan berrikuntza eta hezkuntzaren kalitatea sustatzea.
- Batasunean sartu diren azken herrialdeek EBko batez besteko bizitza-mailara iristea.
- Aberastasunaren banaketa desorekatuaren aurka borrokatzea.

E) Helburu horiek finantzatzeko :

.....

- EGEF Funtsa, Kohesio Funtsa eta egitura funtsak.
- EGEF Funtsa eta Kohesio Funtsa.
- EGEF Funtsa eta egitura funtsak.